

**EUSKAL HERRIKO ELIZ HISTORIAKO  
HISTORILARI NAGUSIAK**

Historilariei dagokien atal honetan, zenbait ikertzailek egingako histori lana arakatuko dugu.

Hemen lana sakonki eta zientifikoki burutu dutenak aipatuko ditugu bereziki.

Egínbidea oso erraza izango da: historilariak aipatuz joango naiz, berauen lanik gogoangarrienak gehituz; baina hau labur-labur, ia estatistika antzera, egingo dut: artxiboetan burututako lanak, ikertu zituzten gaiak etab.; informazio orokorra emanaz eta gaingiroki, hain material-multzo izugarri eta eskergaitza oso zail delako sakonki edo zehatz-mehatz ikertzea.

Sarreratxo honetan adierazi dudanez, sail honetan, Euskal Elizaren gaian lan eskerga edo benetan bikaina burutu dutenei lehenbizi izendatuko ditudanei batez ere, emango diet lehen tokiak. Hala ere, lehenbiziko hauen garrantzirik izan ez arren, zenbait gaietan lan goraipagarria egin dutenak ere sail berean sartu ditut.

**Victor Pierre Dubarat (1855-1939)**

Historilari nagusien zerrenda-buruan jarri dut baionar hau, alde batetik haren idazlan eta liburu kopuruagatik: 250etik go-

ra (aiapamenez gainera); hauetarik 135 Elizaren historiarekin zuzenki nahiz zeharka zerikusia dutenak izanik; eta beste alde-tik artxiboetan metodo ziurrez egindako bilaketa saiatuagatik. Egia esan, honen garrantzia, herrialdez, Iparraldera eta inguruaz (Ipar Euskal Herrira eta Biarnora) mugatua geratu da; gaur egun Baionako elizbarrutiak hartzen duen esparrura, alegia. Bere histori lanetan, argitarapenak egiten eta, 50 urte edo, eman zituen.

Honen argitarapen batzuk lan eskergaitzak, sakonki eta zehatz-mehatz eginak dira eta Euskal Elizaren historiografia bidean urrats handi izan dira: esaterako, «Le missel de Bayonne de 1543. Précédé d'une Introduction sur les Antiquités Historiques et Religieuses de l'ancien Diocèse de Bayonne»; edo «Le Bréviaire de Lescar de 1541»... edo «Mélanges de bibliographie et d'histoire locale» sei liburukiak, edo «Etudes historiques et religieuses du diocèse de Bayonne» lanaren hamabi liburukiak, P. Haristoy-ren lankidetzaz burutuak, edo eta «Recherches sur la Ville et sur l'église de Bayonne. Manuscrit du chanoine René Veillet» J.B. Daranatz-en lankidetzaz burututako hiru liburuki handitako argitarapena.

Oso zabala da V.P. Dubarat-ek ikertutako gaien saila. Gehientsu ikertu duena, hala ere, episkopologioei dagokien saila da, oraingo Baionako elizbarrutiko guztiak hartzen dituelarik: Baionako apezpikuak, Oloroekoak, Sanadon apezpiku konstituzionala eta Loison, hauen apezpikutegietako gaiak eta pastoralgintza.

V. Dubarat-ek ikertutako beste gaietariko bat protestante-erreformaren egoera Biarnon eta Euskal Herrian izan da; A. Cadier-ek Protestantismoaz egindako lanaren ihardespen gisa, hein batez.

Esandakoez gainera, besteak beste, honako hauek aztertu ditu historilari bikain honek: liturgi gaiak, konstituzioak, ordenantzak eta sinodo-estatutuak, erromes-santutegiak, komen-

tuak, monastegiak, abatetxeak etab. aipagarrienetarikoa Orreagakoa izanik; gai hagiografikoak eta biografikoak.

Beste gai asko ere ikertzen ditu: adibidez, elizak, parrokiak, irakaskuntza, gai historikoak dokumentuen argitan etab. berabei dagokien bibliografia, irakurleak bibliografia orokorrean aurkitu ahal izango duelarik.

Beraz, V. Dubarat-en lana bikain-bikaina da. Euskal Elizaren historiografian, Baionako elizbarrutiarri dagokion arloan batez ere, Dubarat garrantzitsuena eta goren-gorengoa dugu, beronen bultzada ezinbestekoa izan delarik Iparraldeko Elizaren ezagupen zientifikoan.

V. Dubarat-en estiloa edo lan-metodoa artxiobotan berberak ikerketak egitea da, edo eta artxiobotan zuzenki egindako lana du ezaugarri nagusia, agiri horietariko asko argitaratzeko lehia agertu zuelarik. Honen lanak ia beti daude artxiobo bateko nahiz beste eskuskribuetan oinarriturik; adibidez, gehientsuen erabili zuena Paben dagoen Behe-Pirinioetako Departamentu-artxioba izan zen; baina Vatikanoko agiriak ere baditu, eta bai beste hauetakoak ere: Orreagakoak, Parisko Artxiob Historiko Nazionalekoak, Parisko kanpotar arazoetako artxiobokoak, Ordiarp-ko artxiobokoak, Haute-Garonne-koak, Baionako katedralekoak, Jakako kapitulukoak, Auch-ko Seminario Nagusikoak, Bordeleko artzapezpikutegikoak, Sarrance-ko komentukoak, Oloroe eta Mauleko babesetxeetakoak, Herrere-ko parrokiakoak, Pabe eta Baionako Biblioteketakoak, eta Baionako uda-artxiobokoak, Borce, Bruges, Jurançon, Leskar, Morlaàs, Oloroe, Ossau, Orthez, Pabe eta abarretakoak... artxioboetarako aurreko kapituluan ikus daitekeenez.

#### **Jose Goñi Gaztambide (1914-)**

Elizaren histori gaiaz burututako argitarapen multzo ugariari begiradatxo bat botatzea aski da Yerri haraneko nafar hau euskal Elizaren mende honetako historilari nagusienetariko dela

konturatzeko. Argitarapen, liburu, ikerketa eta dibulgaziozko artikulua eta aipamen ugarietarik ehun liburu eta artikulua bildu ahal izan ditut euskal Elizarekin eta Nafarroarekin bereziki, zuzenki nahiz zeharka zerikusia dutenak.

J. Goñi-ren lan zientifiko-historikoa ez da jakineko garairen batetara mugatzen. Bai, ordea, tokiz, bereziki Nafarroa hartzen bait du bere ikerketagaitzat.

Historilari sakon eta saiatu honek ere urrats erabakiorrak eman izan ditu euskal Elizaren historiografian.

Lehenengo eta behin honen lan nagusietariko batzuk nabarrian ezartzea edo ezagutaratzea komeni da: 1947.ean «Los navarros en el Concilio de Trento y la reforma tridentina en la diócesis de Pamplona» idatzi zuen. Lan hau oso aberatsa da eskeintzen dituen materialaren aldetik eta bertan nabari den kritika-sena harrigarria. Lekuan lekurako garrantzia bakarrik ez, guztiontzat ere guztiz garrantzitsua da. Lan honen osagarri gisa edo, hor dugu «Los españoles en el Concilio de Constanza. Notas biográficas» izenekoa; 1958.ean Espainiari dagokion, hots, esparru zabalagokoa den liburu hau argitaratu zigun: «Historia de la Bula de la Cruzada en España»; Erdi Aroko Espainako kristautasuna ezagutzeko ezinbestekoa.

1986.ean «Catálogo del Archivo de la Catedral de Pamplona» eman zuen argitara, Erdi Aroko agiriak ezagutaraziz. Haatik honen lanik handien eta garrantzitsuena «Historia de los Obispos de Pamplona» da, oraindik bukatu gabea. Amar liburuki eman ditu argitara 1979.etik 1991.era bitartean, IV. mendetik XIX.era artekoa hartzen dutelarik. Lan nagusi honen edukia, izenburuak adierazten duena baino askoz ere zabalagoa da, apezpikuen biografi ikuspegitik, baina Nafarroako Elizaren ia benetakoa historia bait da izatez.

J. Goñi-k erabilitako gaiak oso ugariak izan dira. Iruñeko elizbarrutiaren historia gai nagusitzat izanik, apezpikuei dago-kiena edo episkopologikoa da gehien ikertu duena eta ildo

honetatik doaz euskal Elizaren historiografian eman dituen urratsik garrantzitsuenak. Elizbarrutiaren zenbait gai historiko ere ikertzen ditu: katedrala, elizbarrutiko eliza, parrokia eta ermitak, kometu, monastegi eta erlijiosoen ordenak, monastegietako bizitza, artxiboetako katalogo eta agirien registak, Gurutzadaren bulda eta barkamenak (indulgentziak) eta.

Euskal Elizaren historiografi arloan egindakoak beste gai hauek ere hartzen ditu: Vatikanoko eta Nafarroaren arteko harremanak, nafarren heziera intelektuala, nafarrek zenbait kontziliotan izan duten partaidetza, liturgia, erreforma eta heresiak, zenbait euskaldun aipagarriren biografiak, Unibertsitateko irakaskuntza, Nafarroa eta Elizarekin zerikusia duten beste hainbat gai, irakurleak bibliografia orokorrean ikus dezakeenez.

Beraz, historilari nekagaitz honek ere ez du Euskal Herri osoko Eliza hartzen, bereziki Iruñeko elizbarrutikoa baizik.

J. Goñi-ren ihardunbide edo estiloari dagokionez, historilari serioa, saiaturia denik ezin uka, bere baieztapenak ziurtatzeko dokumentazioa bilatzen bait du. Esate baterako, argitaraturik dagoen bibliografia ongi ezagutzen duela esan behar, eta artxibo askotan egin dituela ikerketak, berak eten gabe aipatzen bait ditu artxibo horiek eta berauetako agiri ugari argitaratu ere bai. J. Goñi-k ikertu eta aipatzen dituen artxiboen artean honako hauek ditugu: Vatikanoko Artxiboa, Nafarroako Artxibo Orokorra, Iruñe eta Hueskako katedraleetako artxiboak, Iruñe eta Toledoko elizbarrutietako artxiboak, Madril eta Parisko Biblioteka Nazionalak, Simankasko Artxibo Orokorra, Aragoako Artxiboa, Iruñe eta Lizarrako artxibo nazionalak, Tolosan dagoen Gipuzkoako Artxibo Orokorra, Oliko Santa Engrazi artxiboa, Orreagako artxiboa, Irunberriko Santa Magdalena Monastegiko artxiboa, Nafarroako hainbat herritako parrokietako artxiboak eta, Irakurleak Artxiboen atalean ikus dezake zehatz-mehatz historilari honek burutuako lan eskergaitza.

**J. Ignacio Tellechea Idigoras (1929-)**

Mende honetako historilari nagusietarikoa dugu hau ere, euskal Elizaren historiari dagokionez, aurreko biak bezain garrantzitsua ez bada ere.

Honen ikerketa eta dibulgazio-lana harrigarria izan da: 340 lanetatik gora konta daitezke argitaraturik dituenak, hainbat gaitakoak, izan ere: teologikoak, pastoral arlokoak etab., baina histori arlokoak bereziki. Historilari emankor honen lan ugarietarik, euskal Elizarekin zuzenki nahiz zeharka zerikusia duten 70 izenburu sartu ditut neure bibliografian.

Honen lanik interesgarriena, agian, Nafarroako pertsonaia entzutetsu eta arraz eztabaidatua den Bartolome Karrantza Artzapezpikuari buruzkoa da. XVI. mendeko gizon ospetsu honetaz argitasunik asko ematea lortu du bere 60 lanetan zehar.

Nafarroako Elizaren bizitzaz ere argibide zuzenak ematen dizkigu zazpi *ad limina* ikustaldi argitaratuz. Argitasunik asko eman izan du hain ikertua izan den XVI. mendeko egoera sozio-politiko-erlijiosoaz ere, Trentoko erreformaz, hausketez eta Trentoko apezpikuen irudia zehaztuz bereziki.

Baditu euskal Elizaren historiaz ere zenbait artikulu, baina hauek ez dira ikerketa-lanak, dibulgaziozkoak baizik; parrokia, ermita eta abarrez ere baiditu zenbait lan; baita kongregazio, kofradia, ikastetxe, ospitale eta gisa honetako gaiei buruz ere.

J.Ig. Tellechea-k ikertutako euskal gaien zerrenda luzeagoa da, bai historia erlijioso-zibil-politikoaz eta bai batez ere herribizitzako nahiz erlijio-bizitzako zenbait pertsonaiaren biografiaz. Hori erraz somatuko du irakurleak bibliografia orokorrera begiradaxo bat botata.

J.Ig. Tellechea-ren ikerketak zientzi seriotasunez eginak izan ohi dira eta histori lanak artxiboetako aipamen ugariz lagundurik eman ohi ditu, argitaratu gabe zeuden hainbat dokumentu argitara emanez. Ikerketan egin izan duen bide luzean zehar

hainbeste artxibo arakatu ditu: adibidez, Vatikanoko Artxiboa, Vatikanoko Biblioteka, Simancasko Artxibo Orokorra, Historiaren Akademiako Biblioteka, Madrileko Artxibo Historiko Nazionala, Loiolako Artxibo Historikoa, Londresko British Museum-a, Oxford-eko Bodleyan Library, Donostiako S. Bartolome Ikastetxeko Artxioba, Deba, Ituren, Donostiako S. Bizente eta Andra Mari (Santa María) eta abarretako parrokiako artxi-boak. Argibide zehatzagorik aurkitu ahal izango du irakurleak Artxiboei eskainitako kapitulu berezian.

### **Jean Baptiste Darantz (1870-1940?)**

Ezpeletar hau, V. Dubarat lagunaren ondoren, Baionako elizbarrutiaren histori lanetan esanguratsuenetakoa da. Honen lan historiko-literarioa nahiko gogoangarria da eta 170 izenburu edo badiu argitaraturik; hauetarik gehienak, aldizkari ugaritako lankide zenez gero, horietara igortzen zituen artikulak dira. Baionako elizbarrutiko boletinaren zuzendaritza ere bere gain izan zuen. Baionako elizbarrutiaren historiarekin eta Elizarekin zerikusirik handiena duten honen 80 izenburu edo sartu ditut neure bibliografia orokorrean.

Honen histori lanetarik gogoangarriena, V. Dubarat-ekin batera hiru liburuki marduletan burututako eta jadanik aipatua dugun «Recherches sur la Ville et sur l'église de Bayonne» da; «Un procès entre l'Evêché de Bayonne et le Monastère de Roncevaux au XIV<sup>e</sup> siècle» lana ere lankide berarekin burutu zuen; 1923. urtean argitaratu zuen Baionako elizbarrutiari buruzko histori lana, «L'Église de Bayonne» izenekoa. Benetan aipagarria da 1927.ean bi liburukitan argitaratutako «Curiosités du Pays Basque» lana ere; bertan hainbat aldizkaritan aurretiaz argitaratutako artikulua asko biltzen ditu.

Lan estimagarria egin du artxiboetan, beraietan aurkitutakoa laburbildurik argitaratuz.

J. B. Darantz-ek Baionako elizbarrutiari dagozkio hainbat gai berezi ikertu ditu bere artikulua ezberdinetan. Hauen artean,

elizbarrutia orokorki ikusirik eta bertako apezpikuak. Elizgizoen edo apezteriaren gaiak ere erabili ditu: adibidez, elizgizoen izendapenak, apaiz-ordenak, elizbarrutiko patronatuak, komentuak, erlijiosoen ordenak, kaperak etab.

Honen histori lanak elizbarrutiaren beste zenbait arlo ere hartzen ditu: adibidez, seminarioa, sorginkeria, erromesaldiak edo beilak etab. Beste gai asko ere idatzi izan ditu gai biografiako eta historikoetan, irakurleak bibliografia orokorrera begiratu ez dezakeenez.

Beraz, euskal historiografi arloan honek egindako ekarpenik baliotsuena Baionako elizbarrutiko bizitza, erakudne eta elizgizonei buruz gauzatu ahal izan zituen ikerketa eta dibulgazioak izan dira.

Historilari saiatu honek hainbat artxibotan bilatu izan zituen bere historiografi lanerako dokumentu eta albisteak. Bere ikerketa-bide luzean zehar honako artxibo hauek erabili zituen: Baiona, Miarritze eta Uhart-eko udal-artxiboak, Pabeko Behe-Pirinioetako Departementu-Artxiboak, Parisko Kanpotar arazo-etako Artxiboa, Baionako notari artxiboak, Urtubie Gazeluko artxiboa, Hondarribiko parrokiako artxiboa eta Batikanoko Artxiboa. Irakurleak erraz egiazta dezake hau, ikerutako artxibo-ei eskainitako kapitulura begiratu.

### **Antonio Ubieto Arteta**

Historilari honek Nafarroa, Pirinio alde eta Errioxako dokumentazioaren ezagupenerako argi handia egin du, Erdi Aroko zenbait kartulario eta agiri-bilduma argitaratuz; hau da, Euskal Herri zaharreko kristautasunaren ardatz gunean arakatu.

Beraz, honen lana, iturritik harako dokumentazio zaharra aurkeztu digularik, oso baliotsua izan da euskal historiografiarako. Aipatutako agiri zaharren argitarapenez gainera, honeko ikerketa hauek burutu zituen dokumentuen argitan: donemiliaga Kukula eta Leireko Monastegien ikerketa, Iruñe eta Jakako

katedraleena, Nafarroa eta Aragoako elizbarrutiena, eta Kalahorrako elizbarrutiarena, Arabako apezpikuena, edo eta liturgia Nafarroa eta Aragoan gaiari buruzkoa.

Honen ikerketa-lana ez da hor agortzen. Historia orokorren beste gai batzuk ere hartzen ditu; baita gai erlijioso-sozial bereziak ere, aurreko bibliografia pixka bat begitatzuz antze-man daitekeenez.

Ikusten denez, Euskal Herriari, erlijioari eta Pirinio aldeko kulturari dagokion honen histori lana Erdi Aroari datxekiola dago. Ant. Ubietoren joera edo estiloa, berriz, dokumentuak argitara ematekoa izan da, horretarako honako artxibo hauek arakatu dituelarik: Madrileko Artxibo Historiko Nazionala, Madrileko Biblioteka Nazionala, Historiaren Akademiako Biblioteka, Nafarroako Artxibo Orokorra, Zaragozako Zuzenbide Fakultateko Artxiboa, Aragoako Artxiboa, Hueska, Jaka eta Iruñeko katedraleetako artxiboak, Logroñoko Artxibo Kolegiala, Jakako Udal-Artxiboa eta Jakako Beneditar Lekaimen Artxiboa.

### **Andres Eliseo Mañaricua (1911-1988)**

Ongi merezia du A.E. Mañaricua-k euskal Elizaren historialari nagusien artean egotea, Euskal Herriaren kristautzearen auzai ezagutarazeko eman dituen urrats ziur eta zuzenengatik batez ere.

Honek argitaratutako histori lanak ugariak izan dira; 90 izenburutik gora, liburuen aipamen edo erreseinak kontutan hartu gabe: Gehientsuenak aldizkari zientifikoetan argitaratutako artikulua dira. Euskal Herriaren kristautzearen gaian egin izan du honek bere ekarpenik hoberena. Historialari goraipagarri eta ospetsuek, Z. García Villada-k adibidez, ezjakintasunez sortarazitako eritzi okerrak desegiteari eman zion buru eta bihotz, horretarako zientzibidera eta argudio zorrotzetara joz. Egia esan, Z. García Villada-k, batere funtsik gabe, kristautasunaren sarrera XI. eta XII. mendeetara arte atzeratuz, eragin kaltegarria

izan du oraingo historilari batzuren gan. mañaricua-ren aurrera-pausu garrantzitsua izan zen «Vita Amandi» delako auzia ikus-pegi kritiko zorrotzez aztertu eta zegokion tertzioan ezartzea ere, auzi horrek ez bait du inondik inora ere, historian zehar eman izan zaion garrantzirik. Mañaricua-ri zor zaio Prudentzio-ren IV. mendeko esaldi ospetsu hartaz argitasunak ematea. Esaldia honako hau zen: «bruta quondam vasconum *gentilitas*». «Gentilitas» hitzak jentil-egoera edo «paganismoa» esan nahi du.

Kristautzearen une horretaz gain, Gasteiz, Bilbo eta Donostiako elizbarrutiez ere egin ditu ikerketak.

Ama Birjinaren eta bereziki Begoñako Andra Mariaren ikuspuntutik Bizkaiko erlijio-bizitza ezagutaraztea izan zen historilari honen beste ekintza laudagarrietariko bat.

Monastegi eta komentuei buruz, gotzaitegi berri eta gotzain edo apezpikuen izendapenei buruz ere baditu argitaratutako lanak.

Honen lanak goian aipatutakoak baino ugariago dira, oparoen Bizkaiari dagozkion histori lanetan agertzen zaigularik. Hauetarik garrantzitsuena, agian, «Historiografia de Vizcaya» izango da.

Hala ere honen histori lanetan gehien goraipatu edo markatu beharrekoa zera da: bere eritzi eta baieztapenak bermatzeko (oinarritzeko) erakusten dituen seriotasun, zorrotasun eta ganorea. Horrela haren tesiak, euskal Elizaren historiografiak behar duen ziurtasunaren lekuko dira.

Liburu eta argitaratutako beste materialaz gainera, bere ikerketa-gogoia artxibo ugaritan ase du. Honako hauetan, adibidez: Begoñako eta Santiagoko basiliketako artxiboetan, Kalahorra, Logroño, Iruñe eta Ozkabarre-Santo Domingo de la Calzada-ko katedraletako artxiboetan, Kalahorra eta Gasteizko elizbarrutietako artxiboetan, Bilbo, Lezama eta Markinako udal-artixobetan, Bizkaiko Karmeldarren artxiboan, Gernikako Juntetxeko Artxiboan, Nafarroako Artxibo Orokorrean, Madrileko Artxibo

Historiko Naizonalean, Madrileko Biblioteka Nazionalean, Simankasko Artxibo Orokorrean, Valladolid-eko Kantzelaritzako Artxiboan eta Zaragozako Zuzenbide Fakultatekoan. Guzti hori zehatz-mehatz egiazta dezake irakurleak Artxiboei eskinitako aurreko kapituluari.

### **Jose Mari Lacarra (1907-1987)**

Nafarroari dagozkion gaietan bereziki nabarmendu den historiarik bikain honek lan eskergaitza egin du euskal Elizaren historiografian. J.M.<sup>a</sup> Lacarraren histori argitarapenak ugariak dira, hauetarik hainbat eta hainbat bibliografia orokorrean sartu ditudalarik.

Ahalegin bizian artiu izan da dokumentuak argitaratzen, Iratxekeko monastegiari eta Ebro ibarrari dagozkionak bereziki.

Euskal Herriaren kristautzeaz badu artikulua bat edo beste, baina lan hori ez da hain garrantzitsua; areago esango nuke: hor agertutako zenbait eritzi eta ateratzen dituen zenbait ondorio, egia esan, okerrekoak dira. Gai hori gaingiroki aztertu zuela dirudi, eta ez zientzibideak eskatzen duen erako tentuz eta sakontasunez.

Iruñeko elizbarrutiari eta Tuterako elizari dagozkion histori gaiak ikertu ditu; Orreaga eta Leireko monastegiak, Santiagorako beilak (erromesaldiak) eta Nafarroako iraganbidea ere bai.

Baina honen ekarpenik esanguratsuena, estuagariena Nafarroako historia orokorrari dagokion arloan eta Nafarroako beste gai berezi batzutan izan da, bibliografiaren atalean ikus daitekeenez.

Bere ikerketa-bide luzean zehar artxibo ugari ikuskatu ditu, haietako agiriak eten gabe argitaratuz eta aipatuz: iruñe, Tuterara, Kalahorra, Jaka, Ozkabarte-Santo Domingo de la Calzada, Hueska eta Zaragozako katedraletako artxiboak, Lizarrako San Juan Parrokiako artxiboa, Lizarra eta Iruñeko udal-artxibak, Nafarroako Artxibo Orokorra, Madrileko Artxibo Historiko

Nazionala eta Biblioteca Nazionale, Parisko Artxibo Nazionale, Aragoako Artxiboa, Aragoako Zuzenbide Fakultateko Artxiboa eta. Guzti hau zehatzago egiazta dezake irakurleak Artxiboei eskainitako aurreko kapitulura begiratu.

### **Manuel Lekuona (1894-1987)**

Euskal kulturaren gizon jaio honek, etnografiaz, literaturaz eta arteaz burutu duen lan oparoaz gainera, euskal Elizaren histori arloan ere lan txit baliotsua egin du.

Hauen artean estimagarriena, agian, Kalahorrako Katedraleko Kartularioaren argitarapena izan daiteke. Euskal historilariari ematen dizkien ahokuez gain, arkeologia eta hizkuntzaren ikuspuntuetatik argi egiten du Euskal Herriaren kristautzea hobeiki ezagutu ahal izateko.

Hala ere honen ahaleginik bizienak hainbat komentu, eliza, parrokia eta Kalahorrako katedralearen historia ikertzeari emank izan dira; baita zenbait gurutze eta berauen toponimia ikertzeari eskainiak ere. Artea eta bereziki eliz artea ikertzen ere lan estimagarria egin du, mendetan zehar hemen errotu izan den kristautasunaren lekuko gisa aurkezten dizkigu erlijio-artearen altxor hauek. Santiagobidea eta beronen garrantzi historikoa ere aztertu izan ditu.

Lekuonaren lana, baina, ez da hor agortzen. Askoz ere zabalagoa da, irakurleak, bibliografia orokorrera begiraturaz, antze-man dezakeenez.

Hainbat artxibotan izan da langile aspergaitz hau, baina hauetan bereziki: Kalahorra katedraleko Artxiboan, Getaria eta Hernaniko udal-artxiboetan etab.

### **Antoine Degert (1859-1931)**

A. Degert-en histori lan oparoaren artean, bada Baiona eta Akizeko elizbarrutiei buruzkorik. Ez da ahztu behar Iparraldeko zati on bat Akizeko elizbarrutikoa zela. Historialari honen la-

nik aipagarrientarikoa apezpikuei dagokiena da, Akizeko apezpikuei dagokiena batez ere, Baiona, Aire eta abarretako apezopikuen albiste eta zerrendak ematen direlarik.

Gaskoniako apezpikutegiak ematen dizkigun argibideak benetan interesgarriak dira; kontutan hartzekoak dira apezpikutegiei buruz, konstituzio sinodalei buruz eta Gaskoniako elizbiltzarrei buruz, gaskoniar apezteriaren bilereiei buruz eta Elizaren zismak Gaskonian izan zuen eraginiari buruz idatzitako artikulak.

Aipatutako hauei deritzet hoberenak euskal Elizaren historiografiarako. Hala ere Baiona eta Akizeko elizbarruteikin zeri-kusirik duten artikulak gehiagorik ere badu.

Bere ikerketak ongi oinarritzeko hainbat artxibotan ihardun zuen argi bila. Honela, artxibo-funtsa hauen agiri eta aipamenak ikus ditzakegu: Parisko Artxibo Historiko Nazionalekoak, Parisko Biblioteka Nazionalekoak, Vatikanoko Artxibokoak, Akize eta Baionako udal-artxiboetakoak, Landetako eta Behe-Pirinioetako Departamentu-Artxiboetakoak, Akizeko katedraleko artxibokoak etab.

### **Pierre Haristoy (1836-1901)**

Iparraldeko historilari nagusietarikoa dugu hau. Honen lanik garrantzitsuenak, Euskal Elizaren historiografiarako esanguratsuenak, honako hauek dira: «Études historiques et religieuses du Diocèse de Bayonne», V. Dubarat-en laguntza eta gidaritzapean 12 liburukitan argitaratua. «Recherches historiques sur le Pays Basque» izenburupean argitaratutako beste liburuki batzutan Iparraldearen kristautzeaz, hango apezpikuei, elizbarrutien historiak... dihardu. Hoenn beste lan nagusietariko bat zera da: «Les paroisses du Pays Basque pendant la période révolutionnaire»; hiru liburukian argitaratua da.

Beraz, hiru lan nagusi hauetan erakusten duenez, Haristoyren ekarpena oso baliotsua izan da elizbarrutien bizitza azter-

tzerakoan. Eta lan eskerge hauen osagarri, badu besterik ere artikuluetan barreiaturik. Esate baterako, hainbat parrokiari buruz, Baionako apezpikuen pastoral-ekintzei buruz, monastegi, abata nahiz eskolei buruz lan monografikoak, biografiak, Euskal Herritik zehar iragaten zen Konpostelarako beilei (erromesaldiei) buruz, herriei buruzko monografiak etab., irakurleak bibliografia orokorrean ikus dezakeenez.

Argibide eta datu bila hainbat artxibotan izan da. Hona, adibidez: Behe-Pirinioetako Departamentu-Artxioban, Donibane Garazi, Ziburu, Donibane-Lohitzune eta Miarritzeko udal-artxiobotan, Hondarribiko parrokiako artxioban...